-copie Lacombe

Papiers Bonaparte

(Pampelune)

n° 32 de l'inventaire
publié dans RIEB

Catéchisme

en

basque

de

Baïgorry

[par Iribarnegaray]

—

Catéchisme

—

Basque parlé

de

Baïgorry

—

Kurtce saindiain seinaleātic, gure exaietaic libra gitzazu gure Yauna eta Yincoa
Aitain eta semiain eta Izpiritu saindiain izenian, halabiz.

## Gure aita

Gure aita, cerietan zirena, erail bedi saindurki zure izena, ~~ag~~ jin bedi zure erresuma; ein bedi zure bondatia cerian bezala, lurrianē, emarozu eun gure eunco oia; barkazkidantzu gure zorrac guc gureanat zordun diner barkhatcen deitenn bezala, eta ez gitzazula utz tentamendutan erorcera; bainan beira gitzazu gaitcetic. Halabiz.

Agur Maria, graciaz bethia, Yauna da zurekin, beneikatia zira marzte gucien artian eta beneikatia da zure sabeleco fruitia Yesus. Maria saindia, Yincoain ama, eizu othoitz gu bekhatoosentzat orai eta gure heriotceco orenian. Halabiz.

Sinhesten dut Yinco aita bothere gucia dunaitan, Ceriain eta lurrain creatçaliaitan, eta Yesu Christo haren seme bakhar gure Yaunaitan, ceina conceitu baitcen Izpiritu saindiain birtutez, sortu cen Maria Birginānic; pairatu cūn Poncio Pilatusen maniain azpian: Kurtcificatu izuten, yenxi (et non yanxi) cen Ifernūtat, hirugarren eunian yeiki cen

bicik hilen artetic; iraiñ cen ceruetat nun yarria baitao Yinco aita bothere gucia dūnaiñ escoiñian; handic yinen da bicien eta hilen yugatcera. Sinhesten Izpiritu Saindiaitan, Eliza Catolico Saindian; saindien comunionian, bekatien barkamendian; haragiain piztian; bethi iraunen dūn biciçian. Halabiz.

## Salbia.

Agur Erreiña, misericordiain ama; bicia, eztitasuna eta gure esperantza. Agur. Zuri oihuz (oihu se dit aussi souvent) gaude. Evaiñ ume desterratiac, zuri gaude hasperenka, nigarrez eta auhenez nigarrezco haran huntan. Hea bā, gure {abocata / aartecoa}, itzalzkitzu gureanat zure bei misericordios horiec. Eta desterru hunen ondotic eakutsazu Yesus, zure sabeleco fruitu benedikatia. O! urricalmendetxia! o! amultxia! o birgina Maria eztia! othoitz eizu guretzat. Yincoaiñ ama Saindia, izan giten digno ardiesteco Yesus Christōn hitcen bethetcia. Halabiz.

## Confiteor.

Ni bekhatoosa cōsatcen {aitzaco / niz} Yinco aita bothere gucia dūnai, Maria bethi Birgina dohatsiai, ~~Yoanes~~ Micael (Miel) arcanyelu dohatsiai, Yoanes Batichta dohatsiai, Petri eta Paulo apostolu Saindier, Saindu gucier eta zuri ene aita, cēn eiñ baitut sobera bekatu gogoz, hitzez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hartacotz othoitz eiten dut Maria bethi Birgina dohatsiai, Micael arcanyelu

dohatsiai, Joanes Batichta Dohatsiai, Petri eta Paulo apostolu saindier, saindu gucier eta zuri, ene Aita, ein dezazun enetzat othoitz gure Jinco Jaunai.

## Contricionezco Akta.

J. Cristo ene Jauna, Jinco eta gizon eiazcoa, ene creatzailia et Erostia, zu zirenātic eta ceren maithatzen baitzitut gauza gucien gainetic, damūt Jauna bihotz gucitic zu ofentsatuic: harcen dut bōndate ferum bat ez gehiao bekhatuic eiteco; cōsatceco eta emain daaten penitentciain complitceco, eta urruntzeco bekhatu eiteco ocasione gucītaic. Eskaintcen (ofreitcen) dauzkitzut ene bicia, obra eta nekiac ene bekhatien satifacionetan, fida niz zure {huntasun / bōndate} eta misericordia muri gabecoan barkhatuco dazkidazula zure odol preciatu, pasione eta heriotciain mēchimendiengatic eta emain dāzula gracia hobeki bicitceco eta irauteco zure cherbitchu saindian heriotceco tenoreāno. Halabiz.

## Contricionezco Akta franciono gisan.

Ene Jinco maitia barkhamendu galdeiten dauzut humilki ene bekhatu guciez, damūt et urriki zure amoreātic ceren guciz huna ūlaic ofentsatu baicitut eta harcen dut chede cin bat ez gehiao bekhatuic eiteco zure graciaikin batian; halaber harcen dut chedia ene bekhatu guciez osoki cōsatceco eta emain zautan penitentciain complitceco. Halabiz.

4

# Hamar manamendiak

Yincoain legeco manamendiak hamar dira. Lehenbicico hirurac Yaincoain ohorear behatcen zazconac, eta berce zazpiac lagun protchimoain proitchiai.

—

Lehenbicicoa: Yaincoa maitatcia gauza guzien gainetic.
Bigarrena: Haren icen saindria ez yuramentatcia (banoki)
Hirugarrena: Yandiac eta Bestac Santificatcia.
Laugarrena: Aitatama ohoratcia.
Bozgarrena: Nehor ez hiltzia.
Seigarrena: Lohikeriac ez eitia.
Zazpigarrena: Ez eastia.
Zorcigarrena: Lekucotasun falsuik ez altchatcia; ezeta geçurric erraitia.
Beatzigarrena: Bercein esposic ez desiatzia.
Hamargarrena: Bercein gauzaic ez gaizki desiatcia.

## Manamendu berac franciaco gisan.

1 Yincoat adora zazu
halaber maitha osoki
2 Yuramenturic zuc ez duzu
ez ciuik einen banoki

3 Yandiac beirazkizu
Yainare cherbitcha deboki:

4 Aitatama ohorazkizu
Bici citen luceki

5 Nehor obraz hilen ez duzu
Ez bondatez gachtoki
6 Pallardiza einen ez duzu
Obraz ez gogoz likiski

7 Bercena eatsico ez duzu
Ez atchico injustoki (zuzencontra)
8 Lekhucotasunic ez duzu
Ez hitzic errain faltsuki
9 Bercein esposic ez duzu
Desiatuco lizunki
10 Guthicia izain ez duzu
Bercein huntasunen gaizki.

—

Hamar manamendu hoc cerratcen dira bietan: Yincoain cherbitchatcian eta maithatcian gauza gucien gainetic eta lagun protchimoa guhauren buriac bezala.

## Articulu fedezcoac

Articulu fedezcoac dira hamalau: lehenbicico zazpiac Yincotasunai behatcen zazconac; eta berce zazpiac Yesu-Christo Yinco eta Gizon eiazcoain Gizontasun saindiai.

### Yincotasunai behatcen zazconac.

1° Sinhestia Yincoat bakharra guziz bothetsia
2° " dela aita
3° " " semia

(6)

4° " " Ispiritu Saindia
5° " " Creatzailia
6° " " Salbatzailia
7° " " Lorificatzailia.

## Guizontasun Saindiai behatzen zazconac

1° Sinhestia J. Christo gure Yauna gizon bezala izan zela conceitia Ispiritu saindiain obraz eta graciaz.

2° " Sorthu cela Birgina Maria Saindiänic, gelditzen celaic han Birgina erdi aitcinian, erditcian, eta erdi ondoan.

3° " errecitu citila heriotzia eta Pasionia gu bekatorosen salbatceätic.

4° " yautsi cela Infernutat, eta athera citila haren yite saindiain beha zauden arimac.

6° " igain cela ceritat eta daola yarric yinco aita guciz bothëtsiain escuineco aldian.

5° " piztu cela hilen artetic hirugarren eunian

7° " yinen dela bicien eta hilen yuyatcera: hunen emaiteco Loria ceren beiratu dituzten haren manamendiak eta gachtor seculaco pena, ceren etzituzten beiratu.

---

# Catéchima

Galdeiten dut. Gīstino cirea?

Ihardesten dut. Ba, Yincoaīn graciaz.

G. Nōnganic içan cinīn gīstinoaīn icen saindu hori?

I. Jesu-Crichto gure Yannānic.

G. Zer erran nahi da gīstinoa?

I. Cristōin gizona.

G. Ce aitcen duzu Crichtōin giçonaz?

I. Kristōin fedia dūna, batheiaan errecītua, eta obliatia dena haren cherbitcha Saindura.

G. Cein da gīstinoain Seinalia?

I. Kūtze Saindia.

Cendako?

Ceren baita Chrichto Kūtzeficatiain itchura ceintan eosi baiginitīn.

Cemtat gisetāt gīstinoak eiten du seinale hori?

Bietara, jauna.

Cein dira?

Ceinatcia eta santiatcia.

Cer da ceinatcia?

Escoineco escuco eri bekatçaz hiru Kūtze eitia, lehenbicicoa copetan, bigarrena ahoan, hirurgarrena bulharretan, mintçatcen gīlaic Yinco gure Yannaikin.

Eakutz nola?

Kūtce saindiain seinaliātic, gure etsaietaic libra gitzaçu gure yauna eta yincoa.

Certaco ceinatcen cira copetan?

Yincoac libra gitçan obra eta guticia gachtotaic.

Cer da santiatcia?

Escoineco escuco bi eriez kūtce bat eitia copetatic bulharretāno, ezquerreco soaldatic escoinecoāno, mintçatcen gūlaic Trinitate guciz Saindiaikin

Eakutz nola?

Aitain eta Semeain eta Yspiritu Saindiain izenian. Halabiz.

Noiz ein behar ducū Kurutciain seinale hori?

Cerbait obra hun eiten hasten gūlaik edo aurkhitcen gūnian beharrian, tentamendian tentacionian edo lanyerrian; bēciki ohetic yeiquitcian, etchetic atheatcian, Eliçan sartcian, yatian eta lokarciōkoan.

Certaco hainberce aldiz?

Ceen leku eta dembora gucietan gure etsaiec atakatcen eta persecitcen baiguiste.

Ce etsai dira horik?

Mundia, deworria eta haraia.

Beraz Kūtciac badu berthutia etsai horien contra?

Ba, yauna.

Nundic da birthute hori?

Yesucristoc bere heriotciaz Kūtcian gaharitu ciitlacotz.

Adoratcen duqulaic Kūtcia, nola erraiten duzu?

Adoratcen citū, Christo, eta beneikatcen ceren çure kūtce saindiaz eosi duçun mundia.

-

Ikusi dū gīstino cirela gīstinoain icen eta seinaliaz: errāçu orai:

G. Cembat gaucen yaquitea obliatia da gīstinoa heltcen delaic adimendura

J. Lau gaucen.

Cein dira?

Yakitia ce behar dūn sinhetsi, ce galdein, ce obratu, eta ce errecītu

Nola yakinen du, ce behar dūn sinhexi?

Daskilaik Credoa, ~~eta~~ edo Articulu fedezcoac.

Nola yakinen du, ce behar dūn galdein

Daskilaic Yincoain legeco manamendiac, Eliza ama saindiainac eta obra misericordiescoac

Nola yakinen du, ce behar dūn errecītu?

Dasquīlaric Eliza ama saindiain Sacramendiac.

## Lehenbicico partia

Ceintan eakusten baitira credoa eta Fedeco articuliac

G. Errazu: norc erran cūn credoa?

J. Apostoliec, yauna.

Certaco?

Gu fede saindian āguitceco

Eta çuc certaco erraiten duzu?

Gīstinoc dūn fede hunen aithorceco

Cer da fedia?

Ikusi ez dunain sinhestia.

Ikusi cinina zuc J. Cristo sorcen?

Ez, yauna.

Sinhesten duzia?

Ba, yauna, sinhesten dut.

Certaco?

Ceen eta Yincoac eacuxi baitu Eliza ama saindiai eta hunec hala eacusten guri.

Ce ganza dira giristino gisa daskizunac eta sinhesten dituzunac?

Erromaco Eliza ama saindiac daskinac eta sinhesten ditinac.

Ce ganza dira zuc eta harek daskicinac eta sinhesten dituciinac?

Fedesco articuliac beeciki, credoan diren beçala.

Ce ganza dira fedezco articuliac?

Fediain mysterio principalenac.

Certaco dira fedezco articuliac

Ezautceco Yinco gure yauna eta J. Crikhisto gure erredemtoria (Eroslia)

Nor da Yincoa?

Hura da gauçaric hobena, eta miraarriena, erran eta asma ez daitekena: yaun bat guciz huna, botheexia, yakintsuna, yustia, ganza gucien hastapena eta akaantza.

Nor da J. Cristo?

Hura da Yinco biciain Semia,

guri bicitcen eakustkā̄tic eta gure eosteā̄tic guizon eiṅ cena.

Ce erran nahi du Yesusec?

Salbatzailia.

Certaic salbatu gintiṅ?

Gure bekatutic, eta deurriain gatiotasunetic.

Ce erran nahi du Cristoc?

Gantzutia.

Certaz izan zen gantzutia?

Ispī̄tu saindiaiṅ dohainez eta graciez

J. Cristo gure yauna, nola içan cen conceitia eta nola sortu cen ama birginānic

Yincoac obratuz eta miraculuzki.

Nola içan cen obra miraculuzco hura?

Ispī̄tu saindiac ama birginain erraietaco odolic garbienaz formatu cūn gorputz bat; ez densetaic formatu cūn arimāt; arima eta gorphūtz hura elgarrekin bat einic yuntatu ciren Trinitateco bigarren presunai eta ordnartio yinco becic etcenan gueldittu cen yinco eta gizon einic.

Cristōiṅ ama bethi bici içan cena birgina?

Ba, yauna, bethi birgina.

Cendaco hil nahi içan cūn Kū̄tcian?

Gu bekatutic eta heriotcetic libratceā̄tic.

Ce aitcen duçu J. Cristo hil ondoan

yeuxi cen ifernuaz?

Ez dut aitzen condenatiac dauden lekuhura, baina yustiac zauden limboa, deitcen dena Abrahamen galtçarria.

Nola yentxi cen?

Arima yuntatuic yincotasunai

Eta haren gorphutza nola gueldituu cen?

Yuntatuic yincotasun beraikin.

Nola phistu cen hiruarren eunian

Haren gorphutza, eta arima loriaz bethia yuntatcen cīlaic elgarrekin behinē ez hiltceco.

Nola irān cen ceruetāt?

Bere berthutez.

Ce erranahi du ahan daola

Jarrīc aita eternalain escuineco aldian?

Yinco beçala aitac becembat loria badūla eta giçon beçala berce gucieec baino guehiao.

Nōiz yinen da bicien eta hilen yugatcera?

Mundiain akāntzan.

Eta ordian behar dutea hil gucieec phistu?

Ba, yauna, izan ciusten gorphutz eta arima beekin.

Ce sinhesten duzu erraiten duzunian „Sinhesten dut Saindien comunionian"

Gūstino fidel gucieec dutela parte berceen hunatasun ispīritualetan, gorphutz

braten membroac beçala, cein baita Eliza.

Cer da Eliza?

Hura da giristino gucien bilkura ceinen burruçagia baita Erromaco aita Saindia.

Nor da aita saindia?

Hura da Erromaco aphez nausia, lurrian Cristoin bicaria, ceini guciac baigira obliatiac obeitzera.

Credoaz eta articuliez landa, sinhesten ducia berce cembait gauza?

Ba, yauna, Escritura saindian den gucia, eta yincoac bere Eliçai eacuxi dūn gucia.

Ce gauza dira horīc?

Hori ez eni galdein, ceen ignoranta bainiz; Eliza ama Saindiac baitu dotorrac, yaquinen dutenac ihardesten.

Untsa diozu, dotorrer dela eta ez zuri condu emaitia Fedezco gauza guciez. Asqui da zuetçat Fedezco articulien emaitia, credoan diren beçala.

—

## Catitchima bigarren phartia,

ceintan erakusten baitira ce behar den galdein eta Eliza ama Saindiaz othoitzac.

—

Ikusi dū nola dakizun ce behar duzun Sinhexi, hori da lehenbicico gauza; gaçen bigarreneat, ceina baita yakitia ce behar

den galdein.

G. Errazu: Zoc erran cūn Gure Aita?

Y. J. Cristoc, yauna.

Certaco?

Guri othoitz eiten eskusteco.

Cer da othoitza?

Hura da Yaincoai bihotzain altchatzia eta fagoriac galdeitia.

Gure aita erraitian norekin mintço cira?

Yinco gure Yaunaikin.

Nun da Yinco gure Yauna?

Leku gucietan: bēciki cerian eta aldereco Sacramendu Saindian.

Cein da othoizetan hobēna?

Gure aita, yauna.

Cendaco?

Ceren eta J. Cristoc berac erran baitcūn bere ahoz, apostoliec galdeinic.

Cendaco ōno?

Ceren eta baititu zazpi galde caitatian finkatiac.

Cein dira?

Lehenbicicoa, erail bedi sainduki çure icena.

Ce galdeiten duçu galde hortan?

Yaincoain icena izan daila ezautia eta ohoratia munden gucian.

Cein da biarrena?

Yin bedi zure erresuma.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Yincoac erreina dezan hemen lurrian gure arimetan graciaz eta guero eman dezaula bere loria.

Cein da hirnarrena?

Ein bebi gure boondatia, cerian beçala lurrianē.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Yincoain bōndatia ein dezaula lurrian gaudenec, Cerian dohatsiec eiten duten beçala.

Cein da laugarrena?

Emanzu eun gure enneco oia.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Eman ditzaula Yincoac gorphutzeco conbeni den mantenamendia; arimaco gracia izpītualac eta Sacramendiac.

Cein da bozgarrena?

Barkazkidantzu gure zorrac guc gureapat zordun direner barkatcen deztenn beçala.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Yincoac barka ditzaula guhaun bekatiac, hala nola guc barkatcen baititū gure gaisquieilet.

Cein da seigarrena?

Ez gitzazula utz tentamendutan eorcera.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Yincoac ez gitzala utz eorcera, ez eta ere consentitcera, deuvriac bekatian

erorceatic emaiten ditūn goota eta tentacione gachtotan.

Cein da zazpigarrena?

Libra gitzazu gaitcetic.

Ce galdeiten duzu galde hortan?

Jincoac libra gitzala arimaco eta gorphutceco lanyer eta gaitz gucitaic.

Cendaco erraiten duçu lehenic: Gure aita cerietan çandena?

Jincoai bihotza altchatceco eta galdeiteco humilitate eta confiantzaikin

Ce erran nahi du Halabiz askenian erraiten duzun hitz harek?

Hala izan daila.

Ce othoitz eiten duzu bēciki ama Birginai?

Agur Maria eta Salbia.

Noc erran cūn agur Maria?

Ainguru Gabrielec yin celaic ama Birginain salutatcea.

Noc erran cūn Salbia?

Eliza Ama Saindiac (?) ān errecitia

Certaco?

Ama Birginai faoriac galdeiteco.

Agur Maria edo Salbia erraiten duzunian nōkin mintzo cira?

Birgina Maria saindiaikin.

Nor da Birgina Maria Saindia?

Hura da emazte bat berthutez

bethia Yaincoain ama dena eta cerian daona.

Eta aldarian daona nor da?

Hura da cerian daonain itchura eta imayiat.

Certaco dao aldarian?

Hura ikustiaikin othoitz guitin cerian daonaz eta haren itchura eta iduria delacotz ein dezakōn erréspetu

M.? Hori bera ein behar duzu berce saindien imayer eta erlekier.

Ein behar dūya othóitz ainguriez eta saindiez?

Ba, yauna, gure aartecoz beçala

Cer dira ainguriac?

Hec dira Izpitu dohatsu batzu Yincoaz cerian gozatcen direnac.

Certaco Yincoac creatu citin?

Eternitate gucion landatceco eta beneikatceco.

Certaco ōno?

Haren ministro bezala gōrna dezaten Eliza eta gizonac beira.

Beraz çuc banzu ainguru beiralia?

Ba, yauna, eta bacotchac badu beria.

M. Beraz debocione haundia eakuntsakozu, eta hari gomenda cite erun guciez.

---

# 3^{en} Parthea

—

Ikusi dū ce behar duzun sinhexi eta galdein, ikhus dezaun orai ce behar duzun obratu.

G. Errazu: Cein da Yincoain leguneco lehenbicico manamendūa?

Yincoat adora zazu, halaber maita osoki.

Noc maithatcen du Yincoa osoki?

Haren manamendiac beiratcen ditūnac.

Cer da Yincoain maithatcia osoki?

Nahiao izaitia gauza guciac galdu Yincoa ofensatu baino lehen.

Certāt guehiao obliatcen gitu manamendu hunec?

Haren bakarric adoratcera gorphutceco eta arimaco errespetu handienaz, sinhexiz eta esperantza hartuz haren baitan fede bici batekin.

Noc eiten du bekatu manamendu hunen contra?

Idolac edo Yinco falsiac sinhesten eta adoratcen ditūnac.

Noc ōno?

Supersticione edo Sorginkerietan sinhesten (eta ~~adoratcen~~ dūnac eta hetaz baliatcen

denac.

Cein da bigarrena?

Yuramentuic zuc eztuzu ez cinic einen behar gabe {funtxic gabe}.

Noc eiten du yuramentu behar gabe?

Yuramentu eiten dūnac eiaic (funxic), yusticiaic eta beharric gabe.

Eta bekatu dea creaturez yuramentu eitea banoki? funçic gabe?

Ba, yauna, ceren hetan eiten çakon yuramentu creatzailiai

Ce erremedio da yuramentu banoic ez eiteco?

Costumatcia erraitera ez edo ba Jesu Christoc eakusten daun beçala.

Ceiṅ da hirugarrena?

Jiandiac beiraskitzu, yaunare cerbitza, {cherbitcha} deboki.

Noc beiratzen ditu Jandiac eta bestac?

Meça osoa aitzen dūnac eta beharric gabe trāilatcen ez denac.

Cein da laugarrena?

Aitatama ohoraskitzu bici ziten luceki.

Noc ohoratcen ditu Aitatama?

Obeitcen, socorritcen eta errespetatcen ditūnac.

Nor berceic aitcen duzu aitatamain icenian?

20

Gohorao direnac adirian, cargian eta hurrunkan.

Cein da bozgarrena?

Nehor obraz hilen eztuzu ez boondatez gachtoki.

Ce manatcen da manamendu huntan?

Nehori gaiskīc ez eitia ez hitcez ez obraz, ez etare guticiaz.

Cein da seigarrena?

Paillardiza einen eztuzu obraz ez gogoz likiski.

Ce manatcen da manamendu huntan?

Izan giten garbiac hitcez, obraz eta gogotaz.

Cein da zazpiarrena?

Bercēna laxico eztuzu ez atchico inyustoki.

Ce manatcen da manamendu huntan?

Ez Kentcia, ez atchītzia ez etare nahi izaitia bercēn gauza, yabiain bōndatiain contra.

Cein da zortziarrena?

Lekukotasunic eztuzu ez hitz erráin falsuki.

Ce manatcen da manamendu huntan?

Ez arhinki protchimo lanaz gaizki yuyatcia, ez erraitia ez etare aitcia haren huxac.

Noc eiten du bekatu manamendu hunen contra?

Arragoinic gabe yuyamendu gachtoac eiten ditīnac; fama Kentcen; segētia afertcen eta gezurra erraiten.

Ce debekatcen da bedeatci eta hamargarren manamendietan?

Haraisco placer eta berēn huntasunen gutiçia gachtoac.

—

Eliza ama saindiain
manamendiac borz dira.

Lehenbicicoa: Jande eta bestetan meza osoa aitcia.

Biarrena: Urthian behin bedein (berein) cōsatcia edo lehenao hiltceco langerric uste bada edo comuniatu behar bada.

Hirurarrena: Bazco gaïçomacotan comuniatçia.

Laugarrena: Eliza ama Saindiac manatcen dūnian barurtcia.

Bozgarrena: Detchimac eta Primiciac Yincoain Elizai pātzia.

Manamendu berac Frantciaco guisan.

1 Meza saindia ai zazu
Besta Jandetan deboki.
2 Bekatiac coosaskizu
Urthian behin osoki.
3 Gorphutz saindia errecii zazu
Bascoz berein umilki.
4 Gartha bichiliak barurzkizu
Gaizomare osoki
5 Dechimac eta Primiciac pāzkizu
Elizai chuchenki.

G. Certaco dira Manamendu hoc?
I. Yincoain legecoin hobeki beiratceco.

—

Obra misericordiascoac hamalau dira: zazpi izpirtualac edo arimai behatcen zasconac eta berce zazpi corporalac edo gorphutzai behatcen zasconac.

Zazpi izpirtualac edo arimai behatcen zasconac.

Lehenbicicoa: Ez dakinai eakustia
Biarrena: Behardinai conseilu hun emaitia
Hirurarrena: Gaiski dailain correitcia
Laugarrena: Afrontien barkatcia
Bozgarrena: Tristen consolatcia
Seigarrena: Protchimo launain estacuriac eta flakezac pacientciaikin yasaitia.
Zazpiarrena: Hilentçat eta bicientçat Yaincoai othoitz eitia.

Zazpi corporalac edo gorphutzai behatcen zäzconac;

Lehenbicicoa. Erien bisitatcia
Bi. Gose denai yatea emaitia
Hir. Earri denai edatea emaitia
Laug. Gathiboac libratcia
Bozg. Buluciac beztitcia
Seig. Pobrer eta Peleginer ostatu atherbe emaitia
Zazp. Hilac ehortzia

G. Zendaco deitcen dira misericordiazco obra?

Ceren ez baitira zuzenki zor

Noiz obliatukōte bekatiain azpian?

Gizon yakintsunek behar handia dela yuyaten dutenian.

---

## Catitchimain laugarren phartia

ceintan eakusten baitira errecītu behar diren Sacramendiac

—

Ikusi dū ce behar duzun sinhexi galdein eta obratu: ikus deçagun orai ce behar duzun errecītu.

G. Erraskitzu sacramendiac?

I. Eliza ama saindiain Sacramendiac dira zazpi: lehenbicico borzac dira beharrezcoac, obraz edo desiraz errecītu behar direnac, ceinac gabe ecin salba daiteke giçona, uzten baitu mesprecioz: berce biac dira borondatezcoac.

Lehenbicicoa: batheioa
Biarrena: penitentcia (2)
Hirurarrena: confirmacionia (1)
Laugarrena: cominionia
Bozgarrena: oliadura
Seigarrena: ordena
Zazpiarrena: ezcontza

G. Cer dira Sacramendiac?

I. Seinale agueri batzu J. Cristo gure Yaunac establitiac ~~[illegible]~~ hetaz guri emaiteco

bere gracia eta berthutiac.

Cer da gracia?

Izaite yincoaimganicacoat (dibinoat) eiten dūna gizona yaincoaiz seme eta cerūco premu.

Ce bertute emaiten tuzte sacramendiec graciaikin batian?

Principalki (Bereziki) hiru teologalac eta dibinoac.

Cein dira?

Fedia, Espeantza eta Caitatia

Cer da fedia?

Ykusi ez dūnaiz sinhestia, yincoac hala eacutxi dūlacotz.

Noc eiten du bekatu Fedeaiz contra?

Gure Erreligioneco eia guciac sinhesten ez ditūnac edo dudan ditūnac; edo bere faltaz Kasten ez ditūnac.

Cer da Espeantza?

Durikitcia cerūco loria, yincoain graciaiz eta gure obra hunen medioz.

Noc eiten du bekatu Espeantzain contra?

Yincoaiz baitan espeanza galtcen dūnac Ceriain iâztera entseatcen ez denac; eta yincoa misericordiosa delacotz bekatu eiten dūnac.

Cer da Caitatia?

Yaincoaiz maithatcia gauça gucien gainetic eta laun protchimoa gure buriac beçala, hēr einez hec gure

eitia nahi ginukēna.

Certaco da Bathenco Sacramendia?

Kentceco bekhatu originala eta berce edo cein bekatu batheatcen denain baitan aurkhitcen dena.

Cer da bekhatu originala?

Gure aita Adam eta Ama Ebarin ganic sortcez karcen dūn bekhatu bat.

Nornaic bathea decakea behar-ordian?

Ba yauna.

Ce ein behar du untxa batheatceco

Hur natuala churi behar du batheatia izan behar dūnain buriain gainēra (eat) erraitēn dūlaic dembora berian: Bateatcen citut aitain eta Semiain eta Ispītu Saindiain icenian. Halabiz.

Certaco da Confirmacioneco sacramendia?

Confirmatceco eta borthizteco batejioan erreciitu ginūn fedian.

Certaco da penitentciaco Sacramendia

Bateatuz geroz ein bekatien borkhatceco

Cein bekatu?

Mortālac eta benialac

Cer da bekatu mortala?

Erraitia, eitia, phentsatcia edo desiatcia Yincoain legiain contra gauza handian.

Cendaco deitcen duzu mortala?

Ceen hiltcen baitu eiten dunain arima.

Ce condicione behar ditu Penitentciaco Sacramendiac bekhatu mortalain Kentceco?

Hiru, Yauna.

Cein dira?

Bihotceco damia, ahozco cōsioa eta obrazco Satifacionia.

Bekatu mortaliaz eorcen den aldi guciez cōsatu behar dea bereala barkatia içaiteco?

Hun laiteke, bainan ez da necesario

Cecin behar da beraz?

Izan behar da bekatiaz eiazco urriki bat eta chedia hobeki bicitceco eta cōsatceco Eliza ama Saindiac manatcen dun demboran.

Cer da bekatu beniala?

Erraitia, eitia, pensatcia edo desiratcia Yincoain legiain contra gauza ttipian

Cendaco deitcen duzu beniala?

Ceen eta guizona hartan aisa erorcen baita eta aisa barkhatia baitçaco.

Cembat gauzaz barkhatcen zako?

Bedeatciz, yauna.

Cein dira?

1. Meça aitciaz

2. Cominiatciaz

3. Bere buria bekhatoros aithorciaz.

4. Aphezpikiain beneicioniaz

5. Hur beneikatiaz

6. Oï beneikatiaz

7. Gure Aita erraitiaz

8. Predikia aitciaz

Beatciarrena. Bulharrac yoz Yincoai barkhamendu galdeitiaz.

Certaco da cominioneco Sacramendia?

Erreçiitcen delaic dignoki, izan dain gure arimen hazgarri eta emenda deçan gracia.

Ce erreçiitcen ducu Cominioneco Sacramendu Saindian?

Jesu Christo Yinco eta Gizon eiazcoa aldareco sacramendu saindian errealki daona.

Certaco da Oliadurraco Sacramendia?

Hiru gaucetaco

Cein dira?

Leh. Bekhatiain tatcha eta arraston kentceco - Big. arimai indar emaiteco etsayain tentacionen contra.

Hirugarrena. Gorphutzai osarria emaiteco combeni bazaco.

Certaco da Ordenaco Sacramendia?

Ordenatceco eta consecratceco Elizaco ministroac, nola baitira aphezac Diacriac eta Sou Diacriac.

Certaco da Escontzaco Sacramendia?

Escontceco eta Escondiez gracia emaiteco bici diten elgarrekin bakian eta umiac haz ditzaten cerurco.

Bekhatu capitalac

—

Bekhatu capitalak zaspi dira.

Lehenb. urgulia

Big. abaicioa

Hir. lohikeria

Laug. colera

Bozg. gormandiza

Seig. inbidia

Zasp. aferkeria (et non alferkeria)

Certaco deitcentuzu Capitalac, guehienian mortalac deitcen diren zazpiac?

Deitcen dira capitalac, ceen horitaic sortcen baitira ficion buriac, ithurriac eta erroac bezala; etzē untsa mortalac deithzia ceen hanitz aldiz ez baitira benialac becic.

Noiz dira mortalac?

Direlaic yincoain et protchimo launain caitatiain contra.

Noiz deitcen dira caitatiain contra?

Horitaz hausten delaik yincoain edo Elizain manamendu bat gauça handian

Cer da urgulia?

Berciac baino guehiao izaiteco amodio desordenatu at.

Cer da abaicioa?

Huntasunetaco amodio desordenatu at.

Cer da lohikeria?

Desoneskerietaco placer zikinen amodio desordenatu at.

Cer da colera?

Mendecatzeco amodio desordenatu at.

Cer da gormandiza?

Yateco eta edateco amorio desordenatu at.

Cer da inbidia?

Berceen hunaiz (hanntasuna?) yeloscoa

Cer da aferkeria?

Obra hun eiteco guticia falta.

Zazpi bicio horin contra badira zazpi bertute.

Urguliaiz contra humiltasuna.
Abaicioaiz " largotasuna
loliKeriaiz " garbitasuna
coleraiz " pacientcia
gormendiçaiz " sobretasuna
inbidiaiz " caitatia
aferkeriaiz " peestutasuna

—

Arimain etsaiac, ceintaic ihes eiz behar baitu, hiru dira.

Lehenb. Mundia
Big. Deavria
Hir. Haraia

Nola ihes eiten da Mundiaṅik?

Mesprechatuz haren handitasuna eta banitatiac.

Nola ihes eiten da deavriaṅik?

Othoitzaz eta umiltasunaz.

Nola ihes eiten da haraiaṅik?

Barurtuz eta gorphutza cehatuz: hau da etsaic handiena, ceen haraia ez

dezakeun urun guhaunik bainan ba
mundía eta deurria.

Bertute teoloalac hiru dira:

Leh. Fedia
Big. Esperantza
Hir. Caritatia

—

Bertute cardinaloc edo moralac lau dira.

Leh. Prudentcia
Big. Yusticia (cucentasuna)
Hir. Indarra
Laug. Sobretasuna.

—

Gorphutzeco sendimendiak bortz dira.

Leh. Beiez Khustia
B. Beharriez aitcia
H. Ahoz yastatcia
Laug. Sudarraz usaintcia.
Borz. Escuz hunquitcia

Certaco eman dauskiu yincoac
Sendimendiac eta berce gaineaco membroac?

Orotaz cerbitza dezaun gauça
gucietan.

—

Arimaco puchantchiac hiru dira.

—

Lehenb. memorioa
Big. adimendia
Hir. boondatia

Certaco yincoac eman dau memorioa?

Hartaz eta haren faorez ohoitzeco

Certaco adimendua?

Yincoaiz eçautceco eta haren baitan pentsatceco.

Certaco borondatia?

Yincoaiz maitatceco gança gucien gainetic eta laüin proximoa haren amoreātic.

—

Ispĩtu saindiain dohainak zaspi dira.

—

Lehenb. Yakintasunaiz dohaina.
Big. adimendiaiz "
Hir. Conseiliain "
Laug. Ezaguntzaiz "
Bosg. Indarraiz "
Seig. Pietatiaiz "
Zazp. Yincoaiz beldurtasunaiz "

Ispĩtu saindiain fruitiac hamabi dira

—

Lehenb. Caritatia
Big. Bakia
Hir. Bihotceco handitasuna
Laug. Urricaltasuna
Bosg. Fedia
Seig. Beirapena, garbitasuna
Zazpig. Gozo ispĩtuala
Zorci. Pacientcia

Bederatci. Humtasuna
Hamarg. Beraztasuna
Hameca. Modestia
Hamabi. Garbitasuna

Dohatsutasunac zorci dira.

1. Dohatsu dira izpĩtuz pobre direnac:
Ceen hẽntzat den ceruetaco erresuma
2. Dohatsu dira eztiac;
Ceen eta lurreco premu içain baitira
3. Dohatsu dira niar eiten dutenac;
Ceen eta consolatiac içain baitira
4 Dohatsu dira yusticiaz gose eta earri direnac
Ceen eta aseco baitira
5 Dohatsu dira misericordiosac
Ceen eta misericordia eina içain baitcẽ
6 Dohatsu dira bihotzez garbi direnac
Ceen eta Yincoa khusico baitute
7 Dohatsu dira bakia {ardiesten / emaiten} dutenac
Ceen eta Yincoain haur deithiac içain baitira
8 Dohatsu dira yusticia delacotz persecutatiac direnac
Ceen eta heentçat baita ceruetaco erresuma.

G. Ce erran tũ orai?
B. Zorci dohatsutasunac edo zoriontasunac.

Cer dira horĩk? {hocẽ?
Izpĩtu saindiain dohain eta

24

bertuten obraic hobenac

Nor dira izpirituz pobre direnac?

Ohoreic eta abeastasunic nahi ez dutenac, ttipiak icanik ē (icanikē)

Nor dira eztiac?

Samurduraic ez dutenac, ez etare cosic haren hastapenic (atiamenduic).

Nola dira horrain yake?

Beren buruen yaun bezala

Nor dira niar eiten dutenac?

Axeinac uzten diuztenac, ttipiac içanic ē

Nor dira yusticiaz gose eta egarri direnac?

Obliacionez duten gucia arthaikin eiten dutenac.

Nor dira misericordiosac?

Urricalmenduz bethiac direnac arrotcekin ē.

Nor dira bihotzez garbi direnac?

Beren pasionetan osoki mortificatzen direnac.

Nor dira bakia emaiten dutenac?

Beren eta bercen artian bakia ezarcen dutenac

Nor dira yusticia delacotz persecutatiac direnac?

Gauça hunetan fermu daudenacan persecutatiac içanikē (izanaatik)

Cendaco Dohatsutasunac edo zoriontasunac hola deitzen dira?

Ceen eta horitan baitan bicitce huntaco urostasuna (çoriona) eta berceco esperança.

-

## Gizonain lau azken finac.

-

Çoin dira gizonaiz lau azken finac?

Heriotçia, yuyamendia, Paraizia eta Ifernia.

Cer da heriotcia?

Arima gorputcetic atheatcia.

Cer da yuyamendia?

Yuyamendia da Yincoaiz aitcinian aguercia ein den ongiain sariaiz edo gaizkiain gastigiain errecitceco.

Noat yoain da arima yuyatia izan ondoan?

Yoain da bethicoz Paraizurat edo Ifernurat, edo dembora batentçat Purgatoritat, guero Paraizian sarceco.

Eta gorphutza ce bilhakatuco da?

Gorputza guelditucoda lurrian mundiain akaantzāno; bainan ordian yuntatuco da lehenaoco arima beraikin huneu çorte berain ukaiteco.

Cer da Paraizia?

Paraizia da Ainguerien eta Yincoain gracian hil diren gizonentçat destinatu dohatsutasunēco leku bat.

Cer da Ifernia?

Ifernia da deuvrien eta bekhatu

mortaleco estatian hil diren gizonentzat destinatu dohacabetasunezco lekhu bat

Cer da Purgatorioa?

Purgatorioa da graciazco estatian hil diren arimac dauskan lekhu bat, nun mundu huntaco parthez emain baitute bere bekhatiez satifacione osoa.

Satifacioneic emaiten ahal duia guc Purgatoriitan danden arimen penen laurceco?

Ba yauna; arima yusto hen penac laur ditzāskeü (dezazken) ba eta re akhaa gure othoitcez, baruez, limosnez, indulgentciez eta beeciki Mesaco Sacrificio Saindiaz.

—

# Indulgentciez

—

Cer da Indulgentcia?

Mundu huntan eta Purgatoriotan Penitentciaz Yincoai bekhatien gatic eman behar zakon satificioniain barkhamendia.

Nola irāzten da indulgentcia?

Hunen irāzteco manatcen diren gauzac einez graciazco estatian.

Nola barkhatcen ditu Elizac bekhatiai zor zazcon pena tempoalac?

Aplicatuz Elizain icenian Jesu-Christoin pasionia eta Saindien merchimendu haundiac.

# Incarnacioneco misterioaz

—

Cer da incarnacioneco mysterioa?

Trinitate sainduco biarren presuna, yincoain Semia dena, gizon eitia Maria Birginain saelian, Ispītu Saindiain obraz eta berthutez, andre hau gelditzen celaic Birgina erdi aitcinian, erditcian eta erdi ondoan.

Cembat naturaleza ditu Yesu Cristoc?

Baitu bi naturaleza: yincoaina eta gizonaina; baitare bi adimendu eta bi boondate: Presunāt yinco beçala eta memorioat gizon beçala ceen eta ez baita Kausitcen Christo-aithan Presuna gizonezcoic eta yinco bezala gauza guciac baitausca gogoan: aita bat yinco bezala ceina baita aita eternala: eta ama bat, Gizon beçala, ceina baita Andredena Maria(?) ez dūlacotz aitaic gizon bezala eta amaic yinco bezala.

Nun da Christo?

Yinco bezala lekhu eta gauza gucietan eta gizon beçala bakharric Cerian eta aldareco sacramendu saindian.

Cein eunez conceitia izan da Yesu-christo Ama Birginain saelian?

Marchoain hoita borcian: hil cen orciale saindez; phiztu zen Basco eunian; eta eorri cūn Ispītu saindia apostolier Mendecoste eunian.

# Cōsioaz

-

Cembat gauza behar dira Cōsio hun baten eiteco?

Borz, yauna.

Cein dira?

Lehenbicicoa: concientciain examinatcia

Bigarrena: Bekhatiez damu eta urriki Surnatural baten harcia.

Hirnarrena: gehiao bekhatuic ez eiteco chede fermu baten harcia.

Laugarrena: Bekhatiac diren bezala cōsatcia

Bosgarrena: Penitentciain bethetcia.

Cer da contcientciain examinatcia?

Azken cōsio hunaz geroz ein bekhatiez ohoitcia (non orhoitcia)

Nundic examinatcen da contcientcia?

Yincoain legeco hamar manamendutaic, Eliza ama Saindiain borcetaic, obra misericordiazcotaic, bekhatu capitaletaik, eta bat bederac bere estatuco obliacionetaic.

Nola behar da examinatu contcientcia?

Yincoai graciac galdein ondoan ohoitu behar da nun eta nōkin eili den eta cer ocasionetan causitu den; cer bekhatu ein dū manamendu bakhochian eta bere estatuco obliacionetan.

Cembat dembora behar da

contiencientciaiz examinatceco?

Ez da dembora handia behar; bacotchac harta behar du aurkhitcen den circonstantcien arabera, hau delacotz eitecoic importantena (premiaxiena?)

Cer da doloria?

Hura da damu eta uriki surnatural bat yincoa ofentsatuic

Cembat gisetara (gisetaat) da Doloria?

Bietara (bietaat), yauna.

Cein dira?

Contricionia eta Atricionia.

Cer da contricionia?

Hura da damu eta uriki surnatural bat yincoa ofentsatuic, cōsatceco eta gehiao bekhatuic ez eiteco chede azkar batekin.

Cer da atricionia?

Hura da damu eta uriki surnatural bat Yincoa ofentsatuic, bekhatiain itsustasunaz, ceriain galtciaz edo Ifernuain mechitciaz, cōsatceco eta gehiao bekatuic ez eiteco chede azkar batekin.

Cein da bi dolore hoitarik hobēna?

Contricionia, yauna.

Cendaco?

Ceren eta contricioniac berac cōsatu baino lehen barkhatcen baititu bekhatiac, bainan atricioniac ez cōsatu ondorāno.

46 Cer da chede huna?

Cosioa da aphez cōsorrai erraitia bekhatu mortal guciac contcientcian aurkhitcen diren bezala batee utzi gabe.

Nola behar dira cōsatu bekhatiac?

Behar dira garbiki declaatu gogoz, hitcez, eta obraz manamendu bakotchian ein bekhatu mortal guciac ba etare circonstantcia, bekhatca haundiao eiten edo Kambiatcen duten guciac.

Contcientcia examinatu faltaz behar bezala, ahalgez, beldurrez, edo maleciaz uzten bada bekhatu mortal bat cōsatceco, cōsio huna izain dea?

Ez yauna. Leheneco bekhatien gainera einen du sacrilegio at eta gelditcen da obliatia, cōsio berain errebersitcera.

Cōsio huna izain dea, bere nahic gabe ahazten badu declātceco bekhatu mortal bat?

Ba, yauna, bainan ohoitēn delaik leben cōsiān declātu behar du nola aitcinian ahatcīc utzi cīn bekhatu hura.

Bekhatu mortal bat, cōsatcen bada dudazco gisa eta gero ohoitcen bada seurki ein cīla behar dia berriz cōsatu bekhatu hura seur gisa?

Ba, yauna, ceen bekhatiac, ohoitcen denaz geroz, barkhatiac içaiteco cōsatu behar baitira seur gisa.

Bekhatu benialac cōsatu behar direa?

Hun laiteke bainan ez da necesario.

Cer da satifacionia?

Aphez cõsorrac emaiten dũn penitentciain complitcia.

Noiz behar da complitu penitentcia?

Seinalatcen bada dembora, dembora hartan berian. Seinalatzen ez bada, ahal bezein laster.

Cer bekhatu izain da penitentciain ez complitcia?

Penitentcia handia bada eta uzten parthe haundi bat, izain da bekhatu mortala; penitentcia ~~haunditic~~ ttipia bada, edo penitentcia haunditic uzten parthe ttipi bat, izain da bekhatu beniala.

Noiz izain da penitentcia haundia?

Emaiten delaic bekhatu mortalen gatic edo bekhatu mortaleco bidetic urrunteiãtic.

M. Cõsio hunain eiteco behar diren borz gaucetaic bat bakharra falta bada maleciaz, cõsio gachtoa da Sacrilegiozcoa izain da; eta sallbatceotz obliatia da cõsio gachto guien errebẽritcera cõsio yeneral batez.

—

## Cõsatceco moldiaz

—

Nola behar da cõsatu?

Cõsorrain oinetãt baino lehen belhaunicatuic einen da kũtciain seinalia ~~eta~~ eta

ahuspez yarric errain « cosatcen niz », hau finitu ondoan yeiki eta heltcen delaic cōsorrain oinetāt, erraiten da: « Laudatia eta beneicatia izan bedi aldareco sacramendu saindia, edo, aita beneika nezazu zeen ein baitut ~~bekatu~~ bekatu. »

Ce ein behar da gero?

Erran ondoan berac cembat dembora dūn azkenic cōsatuic eta absolucionia ukanic, declātuco tu bere bekhatu guciac humiltasunic haundienaikin.

Ce erran behar da bekhatiac declātu ondoan?

Bekatiac bedazca declātu ondoan errain da: « Gisa berian acusatcen niz orai ta bethi Yincoai ein bekhatu guciez eta galdeiten dacot barkhamendia, eta zuri ene aita ispīturala, penitentcia eta absolucionia baldin conbeni bazautzu. »

Penitentac ez balinbadu bekhatu mortalic acusatcecoic, ce ein behar du?

Lehenao ein bekhatu mortal cōsatutaik bat acusatuco du, eta ez badu, gutienic eiten dūn bekhatu benial bat.

Ce ein behar da gero?

Humiltasun eta errespetuekin aitu ondoan cōsorrain abisiac eta errecíitu penitentcia, erraiten ahuspecatuic bulharrac yoz « contricionezco acta ».

Ce ein behar da cōsatu ondoan?

Ardura eraili gogoan cōsorrain

erranac; gehiao bekhatuzic ez liteco chedia berritu; penitentciac hitceman beçala complitu eta yincoai eskerrac bihartu.

—

## Comunioniaz

—

Cer da ostian?

Aphezac consecracioneco hitçac erran artio oia, yauna; aphezac consecracioneco hitçac erran ondoan J. Cristoin Gorphutz preciatia hain egiazki eta errealki nola baitao cerian.

Cer da kalitcian?

Aphezac consecracioneco hitçac erran artio arnoa hur chortātekin: aphezac consecracioneco hitçac erran ondoan J. Cristoin odol preciatia hain eiazki eta errealki nola baitao cerian.

Ostia consecratian badea Yesu-Christoin Gorphutza bezala odolare eta calitz consecratian odola bezala Gorphutzare?

Ba, yauna, batian eta berecian aurkitcen dira Gorphutça, odola, arima, yincotasuna, eta hiru Persuna dibinoac, halaco gisan nun guciac baitaude ostian eta guciac calitcian.

Ortic eta anotic ez dea deus gelditcen consecracioniain ondoan?

Ez, ez da gelditcen oiain eta arnoan itchurac eta accidentac baicic coinac baitira moldia, coloria, usaina, eta gustia.

Aphezac oi eta apo consecratien accidentac bēchten ditīlaic, hausten dea Y. Cristoin gorphutza edo odola?

Ez: Yesu Christo aurkitcen da den gucia bēchi den parte bacotchian: eta hortacotz ostia parte bat becic errecūtcen ez dūnac errecūtcen du Yesu-Christo gucia nola eiten baitu ostia osoa ein dūnac.

—

## Cominiatceco disposicionez

—

Cembat gauza behar dira cominione hun baten eiteco?

Hiru, yauna.

Cein dira?

Lehenbicicoa: yakitia ce behar dūn errecūtu.

Biarrena: Barur naturalian yuaitia.

Hirugarrena: Graciazco estatian aurkitcia.

Ce errecūtcen du cominiatcen dūnac?

Yesu-Christo gure yauna, Yinco eta gizon eiazcoa Cerian eta aldareco Sacramendu saindian daona.

Ce aitcen duzu barur naturalian yuaitiaz?

Izan behar du gauerdiz (ganberdiz) geroz yan eta edan gabia, nun ez dūn cominiatu behar eri bezala.

Ce aitcen duzu graciazco estatian eoitiaz?

Ez du izan behar bekhatu mortaleco estatian eta hortacotz concientcia unxa examinatu ondoan estatu triste huntan aurquitcen badu bere buria, garbitu behar du cōsio hun bat einez.

Bekhatu mortaleco estatian cominiatzen dutenec errecūtcen dutea Yesu-christo?

Bạ yauna, bainan beren burien condenacioneco, ceen eta eiten baitute Sacrilegiozco bekhatu iciarri bat.

Nola hurbildu behar da cominiatcea?

Oneski bestitio, humilitate errespetu eta eiazco debocione batekin.

—

## Cominioneco mementoaz

—

Ce erran behar da aphezac ostia saindia eskian hartcen dulaic?

« Yauna, ni ~~ez~~ niz digno zure errecūtceco, bainan errazu choilki hitz bat, eta ene arima izain da sendatia eta salbatia. »

Cembat aldiz erran behar da?

Hirnetan, yauna.

Eta gero, ce erraiten da?

« Yauna, zure escu dibinotan gomendatcen dut ene arima. »

Nola son behar da cominiatceco mementoan?

Belhaunicaturic eta beiac apaldurie, bainan itzuliac ostia saindiānat,

gaineat
eta mihia peco ezpainian gaiñera erdi atheatia.

Ce ein behar da Ostia saindia errecitu ondoan?

Aphezac eskia gilatu dinian ahoa hexi behar da eta ostia saindia ihesi bezata denian.
busti
hurtu?

—

# Cōsatceco eta comiiatceco othoitçac

—

## Cōsio aitcineco othoitza

—

Jesu-Christo ene yauna, ene sallbamendiain espeantza bakharra, othoizten zitut zure Pasionia eta Heriotziātic eman dezāzun contricionia, eta auhenac (?) ene bekhatiez niar eiteco. Mundiain salbatzailia, soizu bekhatoros miserable huni zure ama saindiain eta berce saindu gucien merechimendien gatic, iorrāzu, Yauna, zure argia eakuts dezazkiān ene hux guciac eta launezan cure cherbitchu saindura heltcen. Damūt, Yauna, zu ofensatuic, ceen ciren guciz huna, eta osoki maitārria; damūt hain disposicione guti ukanez ene huxen cōsatceco; damu dut ene bizi pasatian ein

bekhatiez eta damut ez damu gehiao ukanic. Hitzemaiten dauzut, Yauna, osoki zureanat bihurziaz, eta ihes eitiaz bekhatuco ocasione gucītaic; bainan hortacotz othoizten zitut eman dezāzun gracia, cōsio huntaic landan, bici vain zure bōndate Saindiaikin ez einez, ez erranez, ez eta pentsatuz zure loriaco eta ene zorioneco denic becic. Halabiz.

—

## Cōsio ondoco othoitza

—

Yauna, zure ama saindiain eta berce saindu gucien merechimendien gatic, izan bedi zure beiētan agrados ene cōsio hau; eta escastu zauzkitan gauza guciac barkha daskidāla zure misericordiac, eta haren arabera urrical zite cerian ni condatciaz absolitia, eta borthiztiaz ene chede huen beiratceco, bici orena, eta erreinatcen duzuna aitaikin eta Ispītu saindiaikin. Halabiz.

—

## Comunione aitzineco othoitza

—

O Aita guciz bothētsia, eta Yinco eta creatzaile saindia, errespetu eta humiltasun haundīnaikin hurbiltcen niz Aldare saindu hortara, nahiz indigno kausitcen

nizan, Zure mayestate adorãrriain errecĩtceco. Ene botztasuna da, Yaun Soberanoa, indigno indigno eiten nĩpa, behar den amodiaikin zure ganat hurbiltceco, bainan zure hitz eztiac dira fidantciaikin hurbilaazten nutenac Ainguerien yanhari saindu hartan partalier izaitera. Zure bõndatia denaz geroz, Yesus eztia, desiratcen dut zure gorphutz dibinoain errecĩtzia Birgina zure ama Saindiac eta bere Cerruco Saindiec errecĩtu cipuzten fede bici, izpĩtu garbi eta karsutasun beraikin. Halabiz

—

## Cominione ondoco Othoitza

—

Eskerrac dauzkitzut, ene Salbatzaile maitia, zuc eni eman gracia gucioz eta bẽcaki ceen eta nahi izan duzun zure eoitza ein ene aithan cominione saindu huntaz. Emaiten nitzauzu nizan guzia, zu eni osoki eman ciren bezala. Othoizten zitut Yesus huna, cominione saindu hau izan dain enetzat bekhatien barkamendia, fediain defentsa, ene bicio gucien heriotcia, amodio desordenatien desterria eta bertute gucien hazgarria: izan bedi ene izpĩtiain sosegia, etai gucien

azotia, eta bakharrik zurekilaco unionia, ene egiazco yauna eta yincoa. Halabiz.

—

# Othoitzac

—

## Yan aitzineco othoitza.

—

Aitain eta Semiain eta Ispitu saindiain icenian. Halabiz.

Gure Yauna eta Yincoa, zu baithan espeantza dū eta yateco behar dena zuc emaiten duzu: zuc eskia zaaldutā gucia beneicionez bethetcen gituzu.

Gure Aita, Agur Maria.

Dohain gucien emaile yauna, zure escutic hartu eta yan behar dūn gucia, beneika zazu, Yesu Christo zure semeātic. Aitac eta Semiac eta Ispitu-Saindiac beneika gitzatela eta gero Loriaco mahaira bethicotz ereman gitzatela. Halabiz.

—

## Yan ondoco Othoitza.

—

Aitain eta Semiain eta Ispitu Saindiain izenian. Halabiz.

Eskerrac bihurcen dauzkizū,

Yinco guciz bothētsia, orai eta bethi zure onguiein guciez Ceina bici baitzira eta erreinatcen baituzu mendetaco mendetan.

G. A., Ag. Mar.

Gure onguiile guciei, Yauna zure beneicioniaz pā zēzu zure icen saindiātic; eta arima fidel guciac Cerurat eremazkitzu zure landatcera eta orai hemen bildunic gauden guciac Ceruco lorian Kausiaraz gitzazu. Halaliz.

—

Orenu emaitian

—

Landatia eta beneikatia izan bedi Andredena Maria harai bician Zaragozāt yin cen orena. Ag. Mar.

—

Angelusetaco iskila yoitian

—

Yaunain Aingurriac berri hun bat eman du Mariai et conceitu du Izpītu Saindiānic. Ag. M.

Huna yaunain nescatoa ein bedi eneaitan zure hitzain arabera. Ag. M.

Eta berboac hartu du haraizco gorphutz bat eta eon izan da gure artian. Ag. M.

—

Othoitza

—

Ichorrazu othoi, Yauna, gure arimetāt zure

gracia, aingurüiac eracuxic Christo gure semiain Guizon-eitia ezautu dūtu hoc, haren Pasionia eta kurutceātic bethico Loriāt eremanac izan gitīn. Hal.

—

Fedezco Ata.

—

Ene Yincoa, sinhesten dut zirela, Aita, Semia eta Ispītu Saindia, Yinco bakharra, eta hiru Presuna beechiac. Sinhesten dut, Trinitateco bigarren Presuna ein cela gizon Ispītu Saindiain berthutez: sorthu cela Maria Birjināric; eta hil cela kurutce batian gure salbatceātic: igain cela Cerietat eta azken eunian yinen dela bicien eta hilen yugatcora emaitceo justier bethico loria eta gachtor seculaco Ifernia. Sinhesten dut aldareco Sacramendu Saindian dada Yesu-Christoin gorphutz preciatia, hain erreālki nola baitago Cerian. Gisa berian sinhesten dūt gue Eliza ama Saindiai erran eta aertu dazcozun Sacramendu, articulu eta Eia sinhetsgarri guciac, eta sinheste huntan bici eta hil nahi dut.

—

Esperantzazco Ata.

—

O ene Yincoa! Zure seme Yesusen merechimendiac

eta heriotcia ararteco dituealaic eta haren graciaikin ein ahala liten dualaic, esperantzaut zure misericordian ukhain dualo ene bekhatien barkhamendia, Ceruco loria et haat beltceco gracia guciac.

—

## Amodiozco Ata

—

Ene Yincoa, maite zitut ene bihotz guciaz eta gauza gucien gainetic ceen baitcira guziz huna eta osoki maitāvria. Halaber maitent ene protchimo launa zure amoreātic. Damūt eta dolu zu ofentsatuic: barkhatcen dēt ene exai gucier zureatic eta zure icenian.

—

## Ofrūmendozco ata

—

Ene Yincoa, eskerrac bihurcen dauzkizut zure esku dibinotaic errecītu tuan graciez eta dohainez eta bēciki ceen utzi nizun beltcera eun saindu huntara, ceintan zure Loriain ohoretan ofritcen dauzkitzut ene goota, hitz eta obra guciac, nahigabe, huntasun guciac eta ene bicia Yesu Cristoin mēchipendu eta odol preciatiaikin; eta hitzemaiten dauzut fermuki gehiao ez ofentsatcia zure graciaikin batian:

emazkidātzu beraz, yauna, zure laguntzac hola gōrna nain Yesu Christoin, haren ama Saindiain eta cerueco berce Saindu gucien mēchimendien gatic.

~~~~~~~~
~~~~~~~~